

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure negozio-ideia arrakastatsua izateko ondorengo funtsezko jarduerak garatuko ditugu: produktuaren ekoizpena, arazoen kudeaketa eta plataforma egonkorra:

- **Aplikazioa** eta **gimnasioko makinekin konektatzen den sistema** integrala diseinatzea, datuen truke zuzena eta fidagarria bermatuz.
- Erabiltzaileen **profil pertsonalizatuak** sortzeko eta ariketa-plangintza automatizatuak diseinatzeke teknologia garatzea, bezeroaren helburuen eta mailaren arabera.
- Diseinu sinple eta intuitiboa ziurtatzea, **edozein adin** eta mailatako **erabiltzaileek** aplikazioa erraz erabil dezaten.
- **Sistema gimnasioetara eramatea** eta instalazio egokia egitea, makinekin eta sarearekin behar bezala integratuta.
- Beharrezkoa denean, material berriak edo **makinetarako eguneraketak sortzea**, teknologiaren eta entrenamendu-beharren bilakaerara egokituz.

Helburua: produktu fidagarri, erabilerraza eta eskalagarria sortzea

Sistemaren funtzionamendu egokia bermatzeko, arazoen kudeaketa azkarra eta eraginkorra egingo da.

- Aplikazioan edo gimnasioko makinetan agertzen diren **akats** teknikoak identifikatu eta **konpontzea**.
- Datuak gaizki gordetzen direnean edo aplikazioaren eta makinen artean sinkronizazio-**arazoak** sortzen direnean, horiek **zuzentzea**.
- Helburuak edo ariketa-planak oker sortzen badira, algoritmoak eta **sistemaren logika berrikustea**.
- Bezeroek aplikazioa erabiltzeko zailtasunak badituzte, **azalpen argiak, mini-tutorialak edo laguntza praktikoa eskaintzea**.

Helburua: erabiltzailearen frustrazioa murriztea eta zerbitzuaren kalitatearekiko konfiantza mantentzea.

Sistema digitala etengabe hobetzeko eta segurua izateko, honako ekintzak egingo dira:

- **Aplikazioa** aldizka **eguneratzea**, funtzio berriak eta erabilgarritasun-hobekuntzak gehituz.
- Makinen eta aplikazioaren arteko konexioak **behar bezala funtzionatzen** duela **egiaztatzea**.
- Erabiltzaileen **datuak modu seguruan gordetzea**, datu-babesaren eta pribatutasun-araudiaren arabera.
- Sistema eguneko 24 orduetan, asteko 7 egunetan erabilgarri dagoela bermatzea, etengabeko monitorizazioaren bidez.

Helburua: plataforma egonkorra, segurua eta etengabe eskuragarri dagoen zerbitzua eskaintzea.

Ekoizpena, mantentze-lana eta plataforma-kudeaketa modu koordinatuan lantzeak gimnasioaren zerbitzu digitalaren kalitatea bermatuko du, erabiltzailearen esperientzia hobetuz eta negozioaren iraunkortasuna sendotuz.



shutterstock.com - 2471680729